

INFORMAZIO OHARRA

Eusko Ikaskuntzaren dokumentazio zentroa, irekian

- *Sarean eskuragarri daude erakundearen online baliabide gehienak.*
- *Edukien artean, besteak beste, daude: eusko entziklopedia, euskal kantutegia, baliabide pedagogikoak baita agiri, argazki, audio eta ikus-entzunezko fondo eta biltegiak ere.*

Donostia, 2020ko martxoaren 26a. Eusko Ikaskuntzaren dokumentazio zentroa aberatsenatarikoa da Euskal Herri mailan. Makina bat dokumentu eta ikus zein entzunezko edukik osatzen dute. Erakundeak modu irekian eskaintzen ditu interesa duen ororentzat, guztiz doan. Helburua historian zehar bildutako jakituria eta ezagutza Euskal Komunitate Globalari zabaltzea da.

Hurrengoak dira, besteak beste, Eusko Ikaskuntzaren dokumentazio zentroa osatzen duten baliabideak:

- **Auñamendi Eusko Entziklopedia:** Bernardo Estornés Lasaren Funtsa biltzen du baita aldiro gaurkotzen diren artikuluko berriak eta efemerideak jasotzen ditu. Bilaketak egiteko orduan gaia, artikuluko sailkapena, lekuen izenak edo egileak zehaztuta egin daitezke. Atal nabarmenen artean Artea eta Ondarearen historia Euskal Herrian, Euskal literaturaren inguruko aipamen historikoak, Hezkuntza Euskal Herrian, Euskal Herriko emakumeak, Euskal Herriko museoak eta Euskal antropologia, etnografia eta folkloreak inguruko erreferentziak daude. Sartu [hemen](#).

- **Euskal kantutegia:** Bost mila partiturez gora osatutako kantutegia. Kantu bakoitzeko deskribapen zabala (izenburua, jasotze lekua eta data, letra eta abar), partitura eta musika MIDI formatuan jasotzen ditu. Bilaketa aurreratuan hitz edo kantutegi zehatzen arabera aurkitu daitezke abestiak. Ikusi [hemen](#).

- **Baliabide Pedagogikoak:** Eusko Ikaskuntzak ekoiztutako baliabide pedagogikoak eskaintzen dira. Historiaren aroak (Historiaurrea, Erromanizazioa, Erdiaroa, Karlismoa, Industrializazioa eta Arkitektura), 1935 - 1947. urte bitartean Euskal Herriaren Yakintzan argitaratutako ipuin eta kontakizunen aukeraketa, eta Euskal Herriko

eraikin, pertsonaia erreferentzialak eta zientzialarien inguruko bideo laburrak. Bisitatu [hemen](#).

- **Barandiaran ezagutu:** Hamar bideo laburrez osatuta, Jose Miguel Barandiaran antropologo eta etnografo ataundarraren bizitzako hainbat gorabehera kontatzen dira bertan, gaztarotik erbestera bitarteko garaikoak. Bideoak [ikusi](#).

- **Dokumentu fondoak:** Manuel de Irujo, Angel de Apraiz, Manuel Lekuona, José María Arizmendiarieta eta Ameriketako Euskal Erakundearen Federazioaren agiri fondoak biltzen ditu. Pertsona eta erakunde hauen agiri fondoaren katalogazioa jasotzen da eta, kasu askotan ere, dokumentuaren irudi digitala eskuragarri dago. Gaur egun, 26.117 dokumentu daude guztira eta, horietatik, 18.115 digitalizatuta eta kontsultara irekiak. Sartu [hemen](#).

- **Multimedia fondoak:** Hainbat argazki fondo (Eusko Ikaskuntza, Añamendi eta zenbait udal), audioak eta bideoak biltzen ditu. Guztira, 80.519 argazki, 1.568 audio eta 266 bideo aurki daitezke. Gainera, bilaketa aurreratuari esker, besteak beste, bilduma, gai, udalerrri edo egilearen arabera aurki daitezke fitxategiak. Bisitatu [hemen](#).

- **Euskal Kultura prentsan:** 1900 eta 1975 bitarteko Euskal Herri osoko egunkarietan bildutako euskal kulturaren inguruko prentsa albisteek (erreferentziak besterik ez) osatuta dago. Horretaz gain, Eusko Ikaskuntzak 1936 urtera arte jaso zuen prentsa txostena ere biltzen du. Kasu honetan, erreferentziaz gain, berria digitalizaturik azaltzen da. Interesgarria da bilaketa hedabide edo urtearen arabera egitea. Kontsultatu [hemen](#).

- **Argitalpenak:** Eusko Ikaskuntzaren historia zabala jasotzen duten argitalpen anitzak, paperezko edizioan ez ezik, formatu digitalean ere eskuragarri daude (aldizkariak, bildumak, monografiak,...). Sarbidea [hemen](#).

- **Podcast:** Interes orokorreko gaiak lantzen dituzten elkarrizketa, irrati tertulia edo erreportajeak biltzen dira. Entzun [hemen](#).

- **Bideoteka:** erakundeak ekoiztutako bideoen biltegia da. Mota askotako ikus-entzunezko pilatzen ditu: kongresuak, jardunaldiak, foroak eta mintegiak, dokumentalak, ekitaldiak... Bideo bildumak [ikusi](#).

Horietaz gain, badaude ere Eusko Ikaskuntzak aste edo hilabeteko maiztasunarekin zabaltzen dituen proiektuak:

- **Euskonews aldizkaria:** Euskal kultura eta zientzia zabaltzeko aldizkaria da. Euskal Herriko pertsonaia esanguratsuei elkarrizketak, gai anitzetako artikulak, atzoko irudiak eta euskal diasporan begirada jartzen duen kosmopolita atalek osatzen dute. Aldizkaria [irakurri](#).

- **Solasaldiak:** Bogan dauden gai ugarien inguruan pertsona esanguratsuei egindako elkarrizketak jasotzen ditu bideo formatuan. Solasaldiak [ikusi](#).

- **Urteko Galdera:** euskal gizartearentzat garrantzitsuak izan daitezkeen gaien inguruko hausnarketarako plataforma da. Proiektu honek, hainbat pertsona eta eragileri Urtero Galdera bat aurkezten zaie, horren inguruko iritzia jasotzeko xedez. Ekarpinak [irakurri](#).

NOTA INFORMATIVA

El centro de documentación de Eusko Ikaskuntza, en abierto

- *La mayor parte de los recursos online de la Sociedad están disponibles en red.*
- *Entre otros contenidos destaca la enciclopedia Auñamendi, el cancionero vasco, los recursos pedagógicos así como el fondo de documentos, fotografías, archivos de audio y audiovisuales.*

Donostia-San Sebastián, 26 de marzo de 2020. El centro de documentación de Eusko Ikaskuntza es uno de los más ricos a nivel de Euskal Herria. Se compone de una gran cantidad de documentos y de contenidos visuales y sonoros. La entidad los ofrece de forma abierta para todo aquella persona interesada, de forma totalmente gratuita. El objetivo es hacer accesible y difundir todo el saber y conocimiento generado a lo largo de los años a la Comunidad Vasca Global.

Los recursos que componen dicho centro de documentación son, entre otros, los siguientes:

- **Auñamendi Eusko Entziklopedia:** contiene el Fondo Bernardo Estornés Lasa y recoge nuevos artículos y efemérides que se actualizan periódicamente. Las búsquedas pueden realizarse concretando el tema, la clasificación del artículo, los nombres de los lugares o de las y los autores. Entre los apartados destacados se encuentran las referencias a la Historia del Arte y del Patrimonio en el País Vasco, las referencias históricas a la literatura vasca, la Educación, las mujeres y los museos del País Vasco, así como la antropología, etnografía y folclore vascos. Entra en la enciclopedia [aquí](#).
- **Cancionero vasco:** cancionero compuesto por más de cinco mil partituras. Recoge una amplia descripción de cada canción (título, lugar y fecha de recepción, letra, etc.), su partitura y la música en formato Midi. En la búsqueda avanzada se pueden encontrar canciones filtrando palabras o cancioneros concretos. Visítalo [aquí](#).
- **Recursos Pedagógicos:** se ofrecen recursos pedagógicos producidos por Eusko Ikaskuntza en euskera. Períodos históricos (Prehistoria,

Romanización, Medioevo, Carlismo, Industrialización y Arquitectura), selección de cuentos y relatos publicados en Euskalerrriaren Yakintza entre 1935 y 1947, y breves vídeos sobre edificios, personajes de referencia y científicos y científicas vascas. Consúltalos [aquí](#).

- **Conoce a Barandiaran:** diez vídeos breves en los que se narran diversas circunstancias de la vida del antropólogo y etnógrafo ataurandarra José Miguel Barandiaran, desde la juventud hasta el exilio. Ver [vídeos](#).

- **Fondos documentales:** incluye los fondos documentales de Manuel de Irujo, Angel de Apraiz, Manuel Lekuona, José María Arizmendiarieta y de la Federación de Entidades Vasco-Argentinas. Se recoge la catalogación de los fondos documentales de estas personas y entidades y, en muchos casos, también está disponible la imagen digitalizada del documento. Actualmente hay un total de 26.117 documentos, de los cuales 18.115 están digitalizados y abiertos a consulta. Entra [aquí](#).

- **Fondo multimedia:** recoge diferentes fondos fotográficos (Eusko Ikaskuntza, Auñamendi y varios ayuntamientos), audios y vídeos. En total, se pueden encontrar 80.519 fotografías, 1.568 audios y 266 vídeos. Además, gracias a la búsqueda avanzada se pueden encontrar ficheros por colecciones, temas, municipios o autores, entre otros. Exploralo [aquí](#).

- **Cultura Vasca en la prensa:** apartado compuesto por las noticias de prensa sobre la cultura vasca publicadas en periódicos de todo el País Vasco entre 1900 y 1975 (sólo las referencias). Se ofrece también el informe de prensa que Eusko Ikaskuntza recogía hasta 1936. En este caso, además de la referencia se da acceso a la propia noticia en formato digital. Es interesante realizar la búsqueda por medio de comunicación o año. Consultalo [aquí](#).

- **Publicaciones:** innumerables publicaciones editadas por Eusko Ikaskuntza a lo largo de su larga historia, disponibles no sólo en su edición en papel, sino también en formato digital (revistas, colecciones, monografías, etc.). Acceso [aquí](#).

- **Podcast:** se recogen entrevistas, tertulias radiofónicas o reportajes que tratan temas de interés general. Escucharlos [aquí](#).

- **Videoteca:** almacén de vídeos producidos por la entidad. Acumula todo tipo de audiovisuales: congresos, jornadas, foros y seminarios, documentales, eventos... [Ver](#) las colecciones de vídeo.

Además de todos los recursos citados anteriormente, existen proyectos que Eusko Ikaskuntza difunde con una periodicidad semanal o mensual:

- **Revista Euskonews:** revista de difusión de la cultura y la ciencia vascas. Está compuesta por entrevistas a personajes significativos de Euskal Herria, artículos sobre diversos temas, imágenes de ayer y secciones cosmopolita que pone la mirada en la diáspora vasca. [Leer](#) la revista.

- **Solasaldiak:** recoge en formato audiovisual las entrevistas que se realizan a personas significativas sobre los numerosos temas que ocupan la actualidad. [Ver](#) las entrevistas.

- **Urteko Galdera (Pregunta del Año):** es una plataforma de reflexión sobre temas que resultan de interés para la sociedad vasca. Este proyecto presenta una pregunta anual a diferentes personas y agentes con el fin de recabar su opinión al respecto. [Leer](#) las aportaciones.